



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea



Osakidetza

GASTEIZKO ERIZAINZAKO
UNIBERTSITATE-ESKOLA
ESCUELA UNIVERSITARIA
DE ENFERMERIA DE VITORIA-GASTEIZ

Zauri kronikoetako biofilmari aurre egiteko tratamenduen eraginkortasuna



Gratu Amaierako lana 2020/2021. Literaturaren berrikusketari bibliografikoa
Vitoria-Gasteiz
2021/05/03

OIER CHAVARRI ALVAREZ

Hitz kopurua: 6109

AURKIBIDEA:

SARRERA	3
ESPARRU KONTZEPTUALA ETA JUSTIFIKAZIOA	4
HELBURUA	10
METODOLOGIA	11
Barneratze eta konparatzeko irizpideak.....	11
Artikulen aukeraketa.....	13
EMAITZAK ETA EZTABAIDA	14
Tratamendu kimikoak.....	15
Surfaktanteak.....	15
Zilarra	17
Kadexomero iodatua	19
Tratamendu mekanikoak	21
Desbridamendu ultrasonikoa.....	21
Presio negatibozko terapia instilazioarekin (PNT-I).....	22
Beste tratamendu batzuk.....	23
“The wound blotting” metodoa	23
Tratamendu naturalak.....	24
ONDORIOAK	25
MUGAK	27
BIBLIOGRAFIA	29
ERANSKINAK	33
I. Eranskina- Kontzeptuen taula	33
II. Eranskina- Bilaketa taula	34
III. Eranskina- Irakurketa kritiko gidoia.....	48
IV. Eranskina- Fluxu diagrama	56
V. Eranskina – Laburpen taula	57
VI. Eranskina- Katetoria zuhaitza.....	66

SARRERA

Esparru kontzeptuala eta justifikazioa: Zauri kronikoen konplikazioen artean biofilma aurkitzen da. Biofilma bakteriei, agente antibakterianoetaz, inguru girotik eta ostalariaren erantzun immunitariotik babesten die, zauri kronikoen eboluzio denbora luzatuz eta haren egoera okertuz. Ikusita zauri kronikoek gizakien bizi kalitatean duten eragina, biofilmarekin duten lotura eta gainera adin nagusiko pertsonetan zauri kronikoen intzidentzia maila areagotzen doala, garrantzitsua izango liteke jakitea zer tratamendu erabili behar den biofilmari aurre egiteko. Izan ere, erizainek zauri kronikoen eguneroko zainketaz arduratzen diren profesionalak dira.

Helburua: Biofilma daukaten zauri kronikoen aurkako eraginkorrak diren tratamenduak identifikatzea, adin nagusiko pertsonetan.

Metodologia: 2014 eta 2020 urte bitartean argitaratutako ikerketak erabili ziren literaturaren berrikusketa bibliografiko hau burutzeko. Hurrengo datu baseak kontsultatu ziren: Medline, CINAHL, CUIDEN, EMBASE eta Cochrane. Horrez gain, eskuzko bilaketa ere egin zen, Wound Research, International Wound Journal eta Journal of Wound Care aldizkari elektronikoetan besteak beste. Azkenik, berrikusketa bibliografiko hau idazteko, 15 artikulua kuantitatibo erabili ziren.

Emaitzak: Tratamenduaren arabera 3 kategori nagusietan banandu ziren: tratamendu kimikoak, tratamendu mekanikoak eta beste tratamenduak. Katgoria bakoitza, azpi-kategoria desberdinetan banandu zen. Tratamendu kimikoak aztertuenak izan ziren, haren barnean surfaktanteak. Biofilmari aurre egiteko eraginkorrak surfaktanteak, zilarra eta desbridamendu ultrasonikoa direla esan daiteke. Dena den, aurkitutako tratamendu guztiek biofilmaren erredukzioa, zauri kronikoen tamainaren erredukzioa edo orbainketa eragin dezaketela erakutsi dute.

Ondorioak: Biofilma eta zaurien sendaketaren denboraren artean erlazio zuzena baieztatu da, hauen orbaintzea bultzatuz. Nahiz eta, biofilmaren kontra tratamenduak erabili, arazo etiologikoa zuzentzea ere garrantzitsua da, tratamenduen konbinazioak erabiliz. Hala eta guztiz ere, biofilmari buruzko ikerketak oso murriztuak dira eta oraindik gaia ikertuagoa izan beharko litzateke, erizainek eremu klinikoan tratamendu eraginkorra erabili ahal izateko.

Hitz gakoak: “zauri kronikoa”, “biofilm” eta “tratamendua”.

ESPARRU KONTZEPTUALA ETA JUSTIFIKAZIOA

Zauri baten orbainketa, larruazalean lesioa gertatu ondoren gertatzen diren prozesuen sekuentzia koordinatua da. Sekuentzia koordinatu horretan lau fase aurkitzen dira: hemostasia, hantura, proliferazioa eta birmoldatzea. Sekuentzia hau faktore exogeno edo endogenootaz baldintzatuta egon daiteke (1). Larruazaleko lesioa gertatzen den momentutik 6 asteetara orbainketa gertatzen ez bada edo tratamenduari erantzuten ez badio, lesioa zauri kroniko kontsideratuko da (2). Zauri kronikoen ezaugarrietako bat, orbaintze sekuentzian hanturazko fasea gehiegi luzatu egiten dela da eta horrek orbaintze-prozesua oztopatzen du. Zauri kronikoak, haren etiologiaren arabera sailkatu daitezke (1,3):

- Ultzera arteriala: arteriosklerosiak edo enboliak eragindako arterien buxadura.
- Zain ultzera: zain itzulera desegokia eragiten duen zain gutxiegitasuna, zain hipertentsioa sortuz eta azkenik ultzera.
- Ultzera mistoak: gutxiegitasun arteriala eta zain gutxiegitasun duen ultzera.
- Ultzera neuropatikoa (Oin diabetikoa): neuropatia periferikoa pairatzen duten pazienteek garatzen dituzte. Izan ere, sentikortasunaren murrizketa dela eta edozein traumatismok mota honetako zauriak eragin ditzake.
- Presio-Ultzerak (PU): presioak, frikzioak edo zizaila, soilik edo konbinaturik, eragindako iskemia mantendua.
- Beste batzuk: eboluzio kronikoko erreduarak, zauri kirurgiko kronifikatuak ... Hau da, sendatzeko 6 aste baino gehiago luzatzen direnak edo tratamenduarekiko erantzunaren eza.

Etiologia bazterturik, normalean, amankomuneko ezaugarriak aurkitu daitezke, hala nola, zitozina proinflamatorioen, proteasen, oxigeno erreaktibo espezien, zelula seneszenten gehiegizko maila eta zelula amen urritasun maila (1).

Honekin lotuta hainbat arrisku faktore daude, zauri kronikoekin erlazionatzen direnak: zahartzea, diabetesa, genetika, haurdunaldia, gain-pisua, sedestazioa, idorrieria, sedentarismoa, posizio aldaketa urriak, nutrizioa, zunden erabilpena, IMC >30 edukitzea, besteak beste (4–6).

Zauri kronikoen konplikazioen artean, infekzioa aurkitzen da. Zaurien orbainketan eragina izan dezakeena. Edukiko duen eragina, haren karga dibertsitate eta birulentzia mikrobianoen arabera izango da. Zauri guztietan bakteriak daude, baina ikerlariek baieztatzen dute bakteria horiek infekzioa eragin dezaketela kolonia formakuntza unitatea gramoko (KFU) 10^5 baino handiago izaten bada (7). Azaldutako unitate horiek baino gehiago baldin badaude, zaurien orbainketa oztopatzen da. Infekzio lokala tratatu ezean sistemikoa bihurtu daiteke. Horrek orbainketa atzeratu ez ezik ondorio okerragoak ere ekar litzaizkioke pazienteari. Infekzioa 5 etapetan sailkatu daiteke, mikroorganismo kopuruen arabera eta ostalarian eragin dezaketan erantzunaren arabera. (8):

- Kontaminazioa: zauri guztiak mikroorganismoak dituzte. Ez du eraginik orbainketa prozesuan.
- Kolonizazioa: proliferazio mugatua daukaten mikroorganismoak dira. Zauriaren orbainketa oztopatzen edo atzerapena eragiten ez dutenak. Mikroorganismoen iturria, flora naturala, iturri exogenoak edo inguruneko esposizioa izan daitezke.
- Infekzio lokala: infekzioa sortarazten da. Bakterioak edo beste mikrobioak zaurian sakonki barneratzen dira eta proliferazio abiadurarengatik ostalarian erantzun immunologikoa sortarazten dute.
- Infekzio hedatua: mikroorganismoen proliferazioa hain handia den, non zauriaz aparte, beste ehunetatik ere zabaltzen dela infekzioa, giharrak, fasziak, organoak edo gorputz barrunbeak.
- Infekzio sistematikoa: infekzioa gorputz osoari eragiten dio. Mikroorganismoak odol sistema eta sistema linfatikoen bidez gorputz osoan zehar hedatu dira, hanturazko erantzun sistematikoa, sepsis eta organoen disfuntzioa eraginez.

Mikroorganismoekin lotuta, zauri kronikoetan beste konplikazioen bat aurkitu daiteke, biofilma. Biofilma, gehienetan genotipo ez-berdineko bakteriez osatuta dago, sustantzia extrapolimerikoaren bitartez haien artean elkar mantentzen direnak, zaurian mintz bat osatuz. Sustantzia extrazelular polimerikoa biofilmaren bolumenaren %90-a da, bakteriak aldera, %10-a (9). Biofilman ager daitezkeen bakteria ohikoenak *Staphylococcus aureus*, *Enterococcus* eta *P.aeruginosa* espeziekoak dira (10).

Biofilma sortuz gero, era berdinean aurkezten da zauri kroniko guztietan. Haren formakuntza, prozesu dinamiko bat da, 4 etapetan sailkatzen dena. *Atxikimendua*,

zauriaren ohantzea elikagai organiko eta inorganikoak ditu eta horiek bakteriak erakartzen dituzte, bakteriak zauriaren ohantzean finkatuz. *Ugalketa*, bakteriak ohantzean atxikitzen direnean substantzia extrazelular polimerikoa jariatzen hasten dira, horrek bakteria gehiago erakartzea eragiten du eta bakteriek substantzia extrazelular polimerikoaren batera ondo eurastrutura hartzen dute. *Heltzea*, bakteriak ondo atxikituta daude matrizean eta biofilm helduak bihurtzen dira. *Isurketa*, biofilma heltzen denean eta horrek gehiago ez hastea eta ezin elikatzea eragiten dionean, zenbait bakteria biofilmatik banatzen dira eta beste ingurunetara mugitzen dira, infekzioak beste guneetan sortuz (2). Prozesu hau 24 ordutan egin daitekeela aztertu egin da (11).

Osatutako matrize extrazelular polimerikoa, batez ere, proteinaz, polisakaridoz, DNA extrazelularrez, urez eta lipidoz osatuta dago (11). Egitura hau biofilma osatzen duten bakteriei, agente antibakterianoetatik, inguru girotik eta ostalariaren erantzun immunitariotik babesten die. Zelulaz kanpoko matrizeak eragiten du biofilmak erresistentzia izatea antibiotikoen aurrean. Biofilma egoera planktonikoekin dauden bakteriekin konparatuz, antibiotikoen aurka 1000 aldiz erresistenteagoa izaten da. Egoera horrek haren aurkako tratamenduaren ezarpena zailtzea eragiten du (12,13). Antzeko eran, odol fluxu baxuak eta oxigeno faltak, bakteriei babes gehigarria ematen diete (7).

Biofilma zaurien orbainketan nolako kaltea egiten duen baieztatzeko, in vitro ikerketa bat egin zen. Ikerketa honetan, biofilma zauriaren kronifikazioan laguntzen zuela ikusi zen. Adibidez, *Staphylococcus aureus* eta *Pseudomonas aeruginosa* bakteriaz osatuta dauden biofilmek eragin handia dute keratinozitoen eta fibroblastoen migrazioan, ugalketan eta bideragarritasunean. Honen eraginez gehiegizko hanturazko erantzuna gertatzen da, ehun epidermikoak kaltetuz (14).

Azaldutakoaren arabera, osasun sistemarentzat zaila izaten da biofilma dituzten zauri kronikoak tratatzea (15). Gainera, biofilma zauri kronikoen %60-an inguru aurkitu daitekeela aztertu egin da, bestalde zauri akutuetan soilik %10-an (1). Honekin lotuta, hainbat ikerketetan portzentaje hori %80-%100 hurbildu daitekeela ikusi egin da (16,17). Erakutsiz, zauri kronikoen ohantzean biofilma aurkitzea ohikoena izaten dela.

Urtero mundu osoan, 17 miloi pertsona inguru zauri kronikoen infekzioak garatzen dituzte eta 550.000 pertsona infekzio hauengatik hiltzen dira. Era berdinean, 2009 urtean, ikertu zen herrialde garatutako populazioaren %1-%2k zauri kronikoak garatuko dituztela, batez ere mundu osoan gertatzen ari den biztanleriaren zahartzea, obesitate eta diabetes intzidentzia maila igoeren erruz (6,7).

Estatu mailan, zauri kronikoei buruz egindako ikerketen bitartez hobeto ulertuko da zelako prebalentzia duten zauri hauek eta nola urtero estatuaren osasun sistemarentzat suposatzen duten erronka. 2003. urtean, estatuko Presio - Ultzeren Prebalentziari buruzko 1^o Ikerketa Nazionalan, ikertu zen nola etxez etxeko laguntza jasotzen zuten pazienteen artean PU-ren prebalentzia %8,34 zela. Ospitale mailan %8,81 zen eta maila sozio sanitarioan %7,6koa zela (18). Ikerketa honetan ere generoen arteko konparaketa egin zen, eta bai ospitale mailan eta bai maila sozio sanitarioan emakumeen prebalentzia handiagoa izan zen (18). 10 urte beranduago beste ikerketa batekin konparatuz gero, estatuko Presio Ultzeren Prebalentziari buruzko 4^o Ikerketa Nazionalarekin, ikusi egin zen PU-ren prebalentzia maila mantendu edo gorantz egin zuela. Non ospitale mailan %8-an mantentzen zen, etxez etxeko laguntza jasotzen duten artean %9,1-ra arte igo zen eta maila sozio sanitarioan %13,41 arte igo egin zen. Generoari dagokionez, aurreko ikerketaren emaitzak errepikatu ziren, prebalentzia tasa handiena emakumeen artean jarraituz (19). Beste aldetik, adinari dagokionez, estatu mailan PU dituzten 57.000 – 100.000 pazientei eguneroko arreta ematen zaie eta haietatik %85 baino gehiago 65 urte baino zaharrago dira (3).

2004an ere, estatuko Hanketako Ultzeren Prebalentziaren Lehenengo Ikerketan, aztertu zen nola ultzera mota hauetako prebalentzia %0,165koa zela 14 urte gorako pertsonentzat, %0,09 zainetako ultzeretan, %0,013 arterietako ultzeretan eta %0,06 mistoetan. Generoari dagokienez zain ultzeren bi heren emakumeetan agertzen dira. Oin diabetiko ultzeren (ODU) kasuan, diabetikoak diren pertsonetan prebalentzia %0,53ko zen (20). Nabarmendu behar da, 75 urtetik aurrera, hanketako ultzera guztien prebalentzia hirukoiztu egiten dela (3).

Gure testuingurura hurbilduz gero, Bizkaian, ospital tertziario batean PU-ren prebalentziari buruz egindako ikerketan, 682 pazienteetatik %10,26-ko prebalentzia

ikusi zen. Estatu mailan egindako ikerketa nazionalarekin konparatuta antzeko zenbakiak dira (21).

Hainbat herrialdeetan ikertu egin da zauri kronikoek eragindako kostua osasun sistemarentzat. Estatu Batuetan zauri kronikoak dituzten 6,5 miloi pertsonen zainketaarako kostua, 50 biloi \$ urteko da (22). Soilik hanketako ultzerez hitz egitean, 1991 urtean Estatu Batuetako kostua 775 milio eta 1 biloi \$ artekoa izan zen. 2005 urtean Erresuma Batuan zain etiologiako ultzerek 168-198 milio £ kostua izan zuten (3).

Estatu mailan soilik PU-erez hitz egitean, 2005. urtean egindako ikerketaren bitartez, aztertu zen 461 miloi eta 602 miloi € artean zegoela urte bateko kostua, urteko gastu sanitario osoaren %5-a izan zen (3).

Eremu klinikoaz hitz egitean, erizainek kontuan izan behar dute, biofilmaren aurkako tratamendua eraginkorra izateko oihantzearekiko atxikimendua moztu, komunikazioa intrazelularra eten eta haren birsorkuntza geldiarazi beharko dela. Horretarako tratamenduaren oinarria, garbiketa, desbridamendua eta zauria antimikrobiano topikoekin tratatzea izango da (23).

Zauri kronikoen prebalentzia arreta maila guztietan gorantz egin duela aintzat hartu behar da (18,19). Honekin batera, zaurien infekzio tasak eta biofilmaren agerpena, ehuneko berdinean hazi dira (1,16,17). Biofilma agertzen denean, erizainaren rola ezinbestekotzat bihurtzen da. Erizainek aurkitzen duten lehenengo zailtasuna biofilma antzematea da. Alde batetik, ezin delako begi hutsez detektatu eta bestetik beste materia ezberdinekin nahasten delako adb. fibrina, neutrofiloak, beste motatako bakteriak, eta abar (23). Biofilma detektatzeko teknika mikroskopikoak (*elektronen bidezko barrido mikroskopikoa*) beharrezkoak dira, haien bitartez gainazal batean biofilmaren formakuntza ikusi daiteke. Erizainak zoritxarrez, eremu klinikoan ez du biofilma detektatzeko tresnarik, hala eta guztiz ere, zauriaren ezaugarrien eta eboluzioaren arabera antzeman daiteke (22). 2012-an *World Biofilm Seminar* erakundeak zauri kronikoetan biofilma identifikatzeko hainbat ezaugarri ezarri zituen: zauriaren oihantzea zurbildua eta edemarekin egotea, granulazio ehun ahula, hori koloreko exudatu asko jariatzea, ehun nekrotikoa, zaurian mina edukitzea eta azkura izatea (11). Irizpide hauek 2017-an gaurkotu eta hauek gehitu ziren: antibiotikoei eta antiseptikoen aurrean ez

erantzutea, tratamenduaren porrota, nahiz eta erabili behar ziren antibiotikoak erabiltzea, zauriaren orbaintze denbora luzatzea, infekzio ziklo errepikakorrak, gehiegizko hezetasuna eta gutxiko hantura kronikoa (11).

Desbridamenduarekin, zauri kronikoaren ehun ez bideragarria ezabatuko da eta horrekin biofilmaren matrizearen alterazioa lortuko da. Baina soilik desbridamenduren bitartez biofilma ez da ezabatuko. Horretarako agente antimikrobianoak erabili behar izango dira. Egia da, biofilmaren aurka mota askotako aposituak, gelak eta terapia naturalak erabili daitezkeela, hala nola, ezia, azido azetikoa, kadexomero iodatua, polihexametileno biguanida (PHMB-a), zilarra... Baina, bibliografian ez dago zehaztuta zeinek daukan eraginkortasun handien biofilmaren kontra (2). Honen ondorioz, biofilma dauzkaten zauri kronikoetan esku hartze okerra eragin dezake eta horrek era zuzenean eragingo du pazienteen bizi kalitatean, autonomiaren eta autoestimuaurren murrizketan, osasun mailaren konplikazioak, dependentzia eta heriotza arriskua igo dezake (3).

Azaldutako arrazoi guztietan oinarritua, argi dago biofilma dauzkaten zauri kronikoak osasun sisteman izugarriko eragin kliniko eta ekonomikoa eragingo dutela, baita pazienteen eta haien zaintzaileen bizi kalitatean. Berrikusketan bibliografiko lan honen helburua biofilmaren aurka eraginkorrak diren tratamenduak identifikatzea da. Izan ere, erizainak zauri kronikoak zaintzeaz arduratzen diren profesionalak dira, orbaintze-prozesua gainbegiratzeko eta konplikazioak ekiditeko. Biofilmaren antzemate-goiztiar eta tratamendu eraginkor batekin ebidentzian oinarritutako zainketak lortu daitezke, orbaintze-prozesua azkartzen eta pazienteen bizi-kalitatea hobetzen.

HELBURUA

Biofilma daukaten zauri kronikoen aurkako eraginkorrek diren tratamenduak identifikatzea, adin nagusiko pertsonetan.

METODOLOGIA

Diseinu mota:

Gradu amaierako lan honen helburuari erantzuna emateko literaturaren berrikusketa bibliografikoa aurrera eraman da.

Bilaketa prozesua:

Bilaketa aurrera eramateko, helburua ezarri ondoren, deskonposatu eta kontzeptu nagusiak finkatu ziren, hala nola, zauri kronikoa, biofilm eta tratamendua. Jarraian, hitz hauen sinonimoak aztertu ziren, bai euskaraz eta bai ingelesez eta ondoren datu base bakoitzeko tesaurolengoi kontrolatura igaro ziren, deskriptoreak lortuz, Medline eta Cochrane Library-n MeSH-ak, CINAHL-en “Descriptors de CINAHL”-ak eta EMBASE-n “EMTREE”-ak.

Zauri kroniko kontzeptu nagusirako, hainbat deskriptore lortu ziren: “Wounds and Injuries”, “Wounds, Chronic”... Biofilma definitzeko bi aurkitu ziren: biofilms eta “biofilm matrix”. Eta tratamendua definitzeko hainbat agertu ziren: “Wound healing”, “Treatment Outcome”, Therapeutics... (*I. Eranskina*)

Ondoren, aukeratutako deskriptoreekin datu base ezberdinetan konbinaketak egin ziren AND eta OR booleanoak erabiliz.

Erabilitako datu baseak, Medline, CINAHL, Chrocrane Data Base, Cuiden eta EMBASE izan ziren. Horrez gain, eskuzko bilaketa ere egin zen, Wound Research, International Wound Journal eta Journal of Wound Care aldizkari elektronikoetan besteak beste. Aurrera eramandako bilaketa prozesua *II. eranskinean* ikusi daiteke.

Barneratze eta konparatzeko irizpideak

Barneratze irizpideak:

Argitalpen data

Informazioa eguneratua izan dadin, lan honetarako 2014 urtetik gaur egun arte argitaratutako artikulak baliagarriak hartu ziren.

Hizkuntza

Ingelesez eta gazteleraz dauden artikulua erabili dira, menperatzen ditudan hizkuntzak direlako.

Herrialdea

Mundu osoko artikulua hartu ziren kontuan, informazio anitza lortzeko helburuarekin.

Populazioa

Paziente helduak, adin nagusiko (>18 urtekoak) emakume edo gizonak. Gainera biofilma edo haren infekzioarekiko zeinu eta sintomak dituzten edozein zauri kroniko izan beharreko pazienteak izan behar ziren.

Argitalpen mota

Artikulua helburuari erantzuten dioten diseinua izatea behar zuten, hala nola, entsegu klinikoak, ikerketa obserbazionalak eta errebisio sistematikoak.

Eskuragarritasuna

Full text-an lortu ziren artikulua.

Kanporatze irizpideak

Argitalpen data

2014 urtea baino lehenago argitaratutako artikulua.

Hizkuntza

Ingelesez eta gazteleraz ez ziren artikulua.

Populazioa

18 urte baino gutxiagoko pazienteak. Zauri akutuak zituzten pazienteak edo biofilma ez zituztenak. Animalietan eta in vitro egindako ikerketak ere baztertu egin ziren, tratamenduak soilik gizakietan daukaten eragina aztertzeko asmotan.

Argitalpen mota

Iritzi artikuluak, informeak, aktak, konferentziak, tesiak eta literatura grisa baztertu egin ziren, subjelibotasun maila handia delako.

Eskuragarritasuna

Full text-an lortu ezin ziren artikuluak.

Artikulen aukeraketa

Datu baseetan bilaketa ekuazioak eraiki ondoren, artikuluaren aukeraketa burutu zen.

Lehenengo fasean, 541 artikulua lortu ziren, horietatik 24 errepikatuta zeuden. Orduan 517 artikuluen izenburuen eta abstract-en irakurketa egin zen, lehenengo aukeraketa bat egiteko. Horrela helburuarekin bat ez zetozen 473 artikulua baztertu ziren.

Bigarren fasean, gaiarekin erlacionatutako artikuluak aukeratuta izanda, 44 artikuluak full text-an lortu eta irakurri ziren, helburuarekin bat zetozen egiaztatzeke. Baina 44 artikuluetatik, 8 ez zuten barneratze irizpideak betetzen eta 23 ez zuten helburuari erantzuten.

Hirugarren fasean, datu baseetatik lortutako 13 artikuluen irakurketa kritikoa egin zen. Irakurketa egin ostean, artikulua guztiak irakurketa kritikorekin irizpideak bete zituzten. Eskuzko bilaketaren bitartez artikulua bat gehiago lortu egin zen. Beste aldetik, datu baseetatik lortutako artikuluen bibliografiatik beste artikulua bat lortu egin zen.

Orduan, GrAL-a osatzeko 15 artikuluak aukeratu ziren. Artikulu hauen irakurketa kritikorekin gidoia, irakurketa kritikorekin taulan agertzen da. (*III. Eranskina*).


Azkenik, pausu guzti hauek laburtzen dituen fluxu diagrama egin zen, non artikuluen aukeraketa eta baztertua azaldu egiten da. (*IV. Eranskina*).

Emaitzak idazteko, hautatutako artikuluen laburpen-taula osatu zen non autorea, urtea, herrialdea, helburua eta emaitza esanguratsuenak jaso ziren. (*V. Eranskina*).

EMAITZAK ETA EZTABAIDA

Biofilma dauzkaten zauri kronikoen pazienteen aurrean erabiltzen diren tratamenduen eraginkortasuna ebaluatzeko 15 artikulua kuantitatibo lortu dira, hauetako batek bi ikerketa osatu zuen diseinu ez-berdinekin: obserbazionala eta kohortezko ikerketa. Lortutako artikulua motak hurrengo grafikoan azaltzen dira (1. Grafikoa).

Ikerketako diseinuak



1. Grafikoa: Berrikusketa bibliografikoan sartutako artikulua, ikerketaren diseinuaren arabera

Artikulu hauetan, adinduak diren pazienteen biofilma daukan edozein zauri kroniko mota agertzen dira. Nahiz eta 2014tik 2020ra arte bilatutako artikulua diren, aurkitutako artikulua gehienak azkeneko hiru urteetan kokatzen dira. Artikuluak aztertu ondoren, zenbait kategoria nagusitan banandu ziren: tratamendu kimikoetan, tratamendu mekanikoetan eta beste tratamendu motetan, informazio garatua zuhaitz-kategorialean azalduta dago (VI. Eranskina).

Tratamenduen eraginkortasuna neurtzeko, gehienetan zaurien ezaugarrien eta eboluzioaren neurketaren arabera izan da, hala nola, orbainketa tasak, granulazio ehuna, biofilm zeinu eta sintomak dauden, zauriaren tamainaren erredukzioa, azal perilesionala, exudatu maila eta ohantzearen egoeraren arabera. Hala eta guztiz ere, ikerketa batzuetan kultibo polimikrobianoak hartu eta teknika mikroskopikoak erabili dira, biofilmaren (karga mikrobianoaren) presentzia eta erredukzioa detektatzeko.

Tratamendu kimikoak

Surfaktanteak

Biofilmaren aurka gehien ikertutako tratamendua surfaktanteak dira. Surfaktanteak biofilmaren matrizearen degradazioaz arduratzen direla aztertu egin da.

Wolcott R-ek (2015), egindako ausazko entsegu klinikoan, surfaktantez (benzalkonium kloruroa) 0,13% kontzentrazioan eta pH azidozko tapoi sistemaz eta haren base konjugatua (polietilenglicol) osatutako “The Next Science Wound Gel” –aren eragina ebaluatu zuen biofilma zituzten zauri kroniko ez-berdinetan, 4 aste iraun zuen tratamenduan. Ikerketa osatzeko 3 talde osatu ziren, bakoitzak 15 pazienteekin. Talde kontrolaren zauriak zainketa estandarrekin sendatzen ziren, 1. talde esperimentalak, zainketa estandarrak eta surfaktantezko gela konbinatzen zuen eta 2. talde esperimentalak, soilik surfaktantezko gela erabiltzen zuen. Zainketa estandarretan, lehenik zauriaren desbridaketa kirurgikoa egiten zen eta horren bitartez lagina hartzen zen mikrobioen zenbaketa egiteko. Ondoren, lehenengo astean antibiotiko enpiriko topikoa erabili zen. Baina laginaren diagnostikoa eduki ostean antibiotiko pertsonalizatua erabili zen, zauri bakoitzaren mikrobioen arabera (sendaketa: astelehena, asteazkena eta ostiralean). Desbridazioa astero egin zen, neurketekin batera. Zaurien tamainen erredukzioaren arabera emaitzak aztertu ziren eta %50 baino gehiagoko erredukzioa izanda arrakastarekin tratatutako zauria kontsideratu ziren. Hau kontuan izanda, 1. talde esperimentalak, zaurien tamainaren erredukzio gehien izan zuen taldea izan zen %72-arekin eta taldeko zauri kronikoen %93-a arrakastarekin tratatutako zauriak kontsideratu ziren. 1. talde esperimentalak, 2. talde esperimentalarekin konparatzean (%80 arrakasta), 1. talde esperimentalak erredukzio estatistikoki esanguratsua lortu zuen ($p < 0,05$). Hala eta guztiz ere, talde esperimentalek, kontrol taldearekin (%53-ko arrakasta) konparatuz, erredukzio estatistikoki esanguratsuak lortu zuten ($p < 0,05$) (24).

Kim D, et al.-ek (2018) egindako beste ausazko entsegu klinikoan, biofilmaren aurka konbinatutako surfaktantez (benzalkonium kloruroa) eta polietilenglicol basez osatutako hidrogel baten eraginkortasuna neurtu zen etiologia ez-berdineko zauri kronikoetan, 12 asteetan zehar (neurketak 0;2;4;8;12 asteetan egin ziren). Pazienteak bi taldeetan banandu ziren talde kontrolean 21 paziente eta talde esperimentalean ordea, 22 paziente.

Talde kontrolean espektro handiko antimikrobiano erabili zen eta esperimentalean surfaktantezko hidrogela. Hilabete bete ondoren 3. neurketa egitean, 12 paziente kontrol taldetik esperimentala igaro ziren, zaurien egoera txarrera joaten ari zelako. Ikerketa amaieran talde esperimentaleko %72k zaurien erredukzioa lortu zuten eta talde kontrola %15k soilik ($p < 0,01$). Beste aldetik, zaurien orbainketa tasa neurtzean emaitza esanguratsuak lortu ziren bi taldeak konparatuz, talde esperimentalean %52ko tasa eta kontrol taldean %16-a ($p < 0,01$) (25).

Wolcott R-en ikerketa Kim D, et al -enarekin konparatzean, talde kontrolak, Wolcott R-ek-en ikerketan %53-ko sendaketa arrakasta izan zuen eta Kim D, et al-en ikerketan soilik %16-a, diferentzia nahiko handia izanik. Hau gerta daiteke, Kim D, et al ek espektro handiko antimikrobianoa erabiltzen dutelako eta Wolcott-ren ikerketan paziente bakoitzean zentratzen delako erabilitako tratamendua. Desberdintasun honek, tratamenduak paziente bakoitzaren ezaugarrien arabera zentratzearen garrantzia erakusten du (24,25).

Zölß C, et al.-ek (2016) egindako kohortezko ikerketa batean, surfaktante basea eta 1% zilar sulfadiazinarekin konbinatutako aposituaren eragina ikertu zen. Ikerketa honetan 184 paziente hartu zuten parte, etiologia ez-berdineko zauri kronikoak zituztenak. 184 pazientetik 124 (%67,4-a) sendatu ziren, 25 (13,6%) erredukzio esanguratsua lortu zuten eta 35 (%19) terapiaz aldatu behar izan zuten, zaurien egoera txarrera joaten ari zelako. Ikerketa honetan nahiz eta zauri guztietan surfaktantea erabili, aipatu beharra dago zauriak zuten denborak konparatzean (<3 hilabete edo >6 hilabete izan zitezkeen) gehiegizko desberdintasuna aurkitu zen eta homogeneotasun hori ez edukitzea, emaitzak baldintzatu ditzake (26).

Lintzeris D, et al.-ek (2018) egindako kasu seriean, PHMB eta purifikatutako kolageno matrizearen konbinaketa, "*purified collagen matrix containing a polyhexamethylene biguanide*" (PCMP), biofilmaren aurkako eraginkortasuna, etiologia desberdineko zauri kronikoetan neurtu zen. PCMP ez zen tratamendu bakarra zaurien sendaketan, izan ere, aurretik desbridamendu kirurgikoa egin zen, biofilm karga handiena kentzeko. PCMP-aren aplikazioaren ondoren lehen mailako apositu ez-itsasgarria erabili zen eta ondoren hezetasuna mantentzen duen apositu sekundarioa eta zauri kronikoaren ezaugarrien arabera eta beharrezkoa izatekotan konpresio edo deskargazko terapia erabili izan zen.

Ikerketa 8 paziente, 9 zauri kroniko osatu zuten. Ikerketa hastean zauri kronikoen batz besteko tamaina 34cm^2 izan zen eta zauriarekin zeramaten batz besteko tratamendu denbora 9.2 astekoa (6 aste ± 17 aste). Ikerketa amaitzean 6 ultzeren orbainketa osoa eta beste 3 ultzeretan %100ean granulazio ehuna eta %61,38-ko batz besteko tamainen erredukzioa lortu zen (27).

Azkenik Vallejo A, et al-ek (2018) egindako beste kasu serie batean desbridamendu ultrasoniko eta PHMB-aren konbinaketa erabili zen. Nahiz eta soilik PHMB-an ez zentratu, desbridamendua egin ondoren honen erabilpena lagungarria izan zen parte hartu duten 4 pazienteen zauri kronikoen biofilma ezabatzeko eta orbainketa gertatzeko (28).

Honen harira, ikerketa honetan ez zen kontrol talderik egon, Zölß C, et al.-ek, Lintzeris D, et al-ek eta Vallejo A, et al-ek egindako azterlanean bezala. Honen eraginez ezin daiteke hauen emaitzak beste tratamendu batekin konparatu, hauen eraginkortasuna fidagarriago izan ahal izateko, Wolcott R-en eta Kim D, et al.-en egin zuten moduan. Hala eta guztiz ere, lortutako ikerketen emaitzek surfaktanteek biofilma konbatitzen dutela erakusten dute (24–28).

Zilarra

Azpi kategoria honetan zilarra edukitzen zuten produktuen ikerketak barneratu dira. 3 artikulu osatzen dute azpikategoria hau (12,29,30)

Wei, M. et al.-ek (2019) egindako ausazko entsegu klinikoan, zilarrarekin konbinatutako antibakterial proteasaren eraginkortasuna ebaluatu zen. Ikerketa honetan bi talde osatu ziren, kontrol taldea, bertan 0,9% soluzio salinoa gehi zilarrezko apositua erabiltzen zen eta talde esperimentalean, ordea, antibakterial proteasazko soluzioa gehi zilarrezko apositua erabiltzen zen sendaketa egiteko. Sendaketak bi egunetan behin egiten ziren eta zauri kronikoak 28 egunetan zehar kontrolatu ziren. Ikerketa honetan elektroi bidezko barridozko mikroskopia erabili zuten biofilmaren erredukzioa baieztatzeko. Biofilma autoreek osatutako 5 puntuko eskala arbitrario baten bitartez puntuatu zen, bakterien kantitate eta biofilmaren arabera (0=bakteria gabe/ 1= zelda bakarra indibiduala / 2= mikrokolonia txikiak (± 10 zelula) / 3 = mikrokolonia handiak

(± 100 zelula) / 4= pelikula jarraitua / 5= pelikula lodi jarraitua). Eskalaren bitartez 0 eguneko neurketan, 5 puntu lortu zuten talde esperimentalak eta talde kontrolak, baina 28 eguneko neurketan kontrol taldea 3 puntu lortu zuen eta esperimentalak 2 puntu, erredukzio handiagoa talde esperimentalak edukiz. Bakterien fluoreszentsia intentsitatearen mailaren erredukzioa bi taldeetan ikusi zen, baina talde esperimentalak erredukzio estatistikoki esanguratsua lortu zuen ($p < 0,001$). Berdin gertatu zen matrize extrazelularrekin, talde esperimentalak ere murrizketa esanguratsua izan zuen ($p < 0,001$), biofilmaren erredukzioa baieztatuz. Zaurien tamainaren erredukzioa taldeen artean konparatzean, diferentzia esanguratsua ikusi ziren talde esperimentalean ($p = 0,030$). Tamainaren erredukzioa lortu daiteke talde esperimentalak izan zuen biofilm erredukzioarekin, horrek zaurien sendaketa nabarmenagoa eragin zuen (12).

Harding, K. et al-ek (2015) egindako entsegu kliniko ez konparatiboan bere konposaketan zilarra duen apositu baten (Aquacel Ag+) eraginkortasuna neurtu zen, biofilm zeinu eta sintomak zituzten zauri kronikoetan. Ikerketaren lagina $n=41$ izan zen, guztiek hanketako zain ultzerak zituzten eta guztiei eman zitzaizkien tratamendua berdina, kontrol talderik gabe. Tratamenduaren iraupena 8 astekoa izan zen (neurketak astero egin ziren), non lehenengo 4 asteetako sendaketak egiteko Aquacel Ag+ erabili zen eta ondorengoak Aquacel-rekin soilik egin ziren eta sendaketa osatzeko hauen gainean exudatuaren arabera bigarren mailako apositua eta konpresio terapia erabili behar izan zuten. Tratamendua amaitu baino lehen 5 ultzeren (%12.2) sendaketa lortu zen. Tratamendua amaitzean %58,5 ultzeratan aurrerapen esanguratsua lortu ziren eta zauri kronikoen azaleraren erredukzioaren batz bestekoa %54,5 (\pm %42,8) izan zen (29). Ikerketan barneratutako zauri kronikoek zituzten eboluzio denborak, hilabete bat eta bi urte artean, haiengan tratamendua izan duen eragina konparatzeko zailtasunak ekarri ditzake. Izan ere, hilabete bat daraman zauri kronikoa orbaintze denbora motzagoa izango du bi urte daraman zauri kroniko batekin konparatuta, horregatik aldagai hau emaitzetan eragin dezake. Beste aldetik, erabilitako lagina txikia izanda eta talde kontrolik ez edukitzean, benetako eraginkortasuna neurtu ahal izateko ausazko entsegu klinikoak behar izango dira.

Gino Di Domenico, E. et al-ek (2020) egindako ikerketa pre-esperimental batean, *S.Aereus* eta *P.aeruginosa*s infektatutako ODU-etan zilar sulfadiazinaren eragina neurtu zen. 16 paziente osatu zuten ikerketa eta 72 orduro sendaketa eta aposituen aldaketa jaso

zuten. Ikerketak 30 egun iraun zuen eta (0 ;7 ; 30 egunetan) biopsiak jaso ziren biofilma identifikatzeko. TIME protokoloa erabiliz, aldaketak esanguratsuak ikusi ziren 0 eta 30 egunetan artean, bai ohandzearen ehunean ($p<0,001$), bai infekzio zeinu eta sintometan ($p<0,001$), bai exudatu mailan ($p<0,001$), baita zaurien hertzen ehunean ere ($p<0,002$). 30. egunean ere, hartutako kultibo mikrobiano guztiak negatibo eman zuten, adieraziz zilar sulfadiazina agente antimikrobiano eraginkorra izan zela biofilmaren aurka (30).

Azkeneko ikerketa honetan eta Harding K, et al ek egindako ikerketan soilik zauri kroniko mota bakar batean zentratzen ziren. Bestalde, Wei M et al-ek edo surfaktante tratamenduan barneratutako artikuluetan etiologia ez-berdineko zauri kronikoak sartu zituzten. Nahiz eta, guztietan tratamenduen eraginkortasuna frogatu, etiologia ez-berdinetan zentratzeak aldagai gehiago sortzen ditu, zauri kroniko mota bakoitzak behar duen tratamendu espezifikoa edo orbainketa denbora desberdinak direlako. Horrek etiologia ez-berdineko zauri kronikoak erabiltzen dituzten ikerketen emaitzak baldintzatu ditzake (12,24–30).

Laburbilduz, lortutako ikerketen emaitzen arabera, zilarra beste antimikrobianoekin konbinaturik biofilma dituzten zauri kronikoen tratamendurako baliogarria izan daiteke, hauen sendaketa bultzatuz eta lortuz.

Kadexomero iodatua

Biofilma dituzten paziente adinduen zauri kronikoetan, kadexomero iodatuaren eragina neurtzen duten 2 artikulua soilik lortu dira (31,32).

Alde batetik Malone M, et al-ek (2017) egindako aurrera-begirako ikerketa obserbazional batean, biofilma zituzten ODU-tan kadexomero iodatuaren eragina ebaluatu zen, 7 egun iraun zuen ikerketak. Paziente guztiak ($n=17$) zainketa berberak jaso zituzten, desbridamendu kirurgikoa egin ondoren kadexomero iodatua aplikatu zitzaizen. 7. eguneko neurketan, 11 pazienteengan bakterien $1 \log_{10}$ KFU/g erredukzioa lortu zen, erredukzio esanguratsua lortuz ($p=0,02$), baina beste 6 pazienteetan, nahiz eta bakterien mailan erredukzioa lortu, ez zen estatistikoki esanguratsurik izan. Metaloproteasen jaitsiera esanguratsua ere ikusi zen ($p=0,03$), zaurien sendaketan lagundu dezakeena (31).

Beste aldetik, Malone M, et al.-ek (2019), kohortezko ikerketa egin zuten. Ikerketa horretan, biofilma zituzten ODU-etan kadexomero iodatuaren eraginkortasuna 2 eta 6 aste arteko tratamendu iraupenen arteko konparaketa eginez neurtu zen, kadexomeroa bi egunetan behin aplikatuz. Aipatzekoa da ODU guztietan biofilma detektatu zela *elektronen bidezko barrido mikroskopikoaren* bitartez. 18 paziente ausazko eran bi taldeetan banandu ziren tratamendu denboraren arabera. Ikerketa amaieran 18 pazientetik 15 hasieran zuten biofilm kargarekin konparatuz 0,5 log₁₀ KFU/g erredukzioa lortu zuten, murrizketa esanguratsua lortuz (p=0,04). Baina, bi taldeen biofilm murrizketa konparatzean, ez zen aurkitu desberdintasun esanguratsurik haien artean (p=0,071), horrek esan dezake tratamenduaren luzapena ez duela eraginik izango biofilm kargaren murrizketan. Baina mikroskopioaren laguntzaz pazienteak indibidualki analizatu ziren ikusiz bakoitzak biofilma osatzen zuten mikroorganismo ez-berdinak zituztela. Honen bitartez aztertu zen nola bakteriak batzuk sentiberagoak zirela kadexomero iodatuaren aurrean. Hala nola, paziente batean *Pseudomonas*, *enterococcus* eta *Streptococcus* bakteriak 6 asteko tratamenduarekin bakterien %100 desagertu ziren, baina beste paziente batean 2 asteko tratamenduarekin soilik %20-a erredukzioa lortu zen. Kadexomero iodatuaren aurrean erredukzio gutxiago izan zuen bakteriak *Corynebacterium* izan zen, kasu batean soilik %4-ko erredukzioa lortuz. Ikerketan honetan ere, bi talde osatutako ODU-ek zuten denboran diferentzia esanguratsuak nabaritu ziren, horrek emaitzak baldintzatu ditzake (32). Ikusita mikroorganismo batzuk sentiberagoak direla, bi tratamenduen arteko lagin handiagoko ikerketa osatzea, mikroorganismo mota desberdinen aurrean eraginkorra identifika zera lagunduko zuen.

Malone M, et al.-ek (2017). urtean egindako ikerketan biofilmaren kontra kadexomero iodatua izan zezakeen eragina erakutsi zuten. Baina 2019. urtean egindako kohortezko ikerketan erakutsi izan zuten mikroorganismo motaren arabera, tratamendu denbora eragina izan dezakeela biofilmaren erredukzioan. Horregatik, aldezturik jakinda biofilma zer mikroorganismo osatzen duen, kadexomero iodatuaren tratamendu denbora bat ezar liteke, biofilma murrizteko eta zauriak sendatzeko eraginkortasun handiagoa ahalbidetuko lukeena (31,32).

Tratamendu mekanikoak

Desbridamendu ultrasonikoa

